



BARREN
TOKIKOM



Sototik dator hotsa

INAUGURAZIOA!

Irailaren 15ean, 19:00etan

Egur ARTE TAILERRAK instalazio berriak estreinatuko ditu eta ume eta helduentzako eskaintza zabalarekin dator. Etorri ezagutzera!



3 - 5 URTEKO UMEENTZAKO PINTURA TAILERRA

Astelehen, astearte edo ostegunetan • 17:00-17:50 ikasturte osoan zehar
12€ / hilean (materiala barne)



6 URTETIK GORAKO UMEENTZAKO PINTURA TAILERRA

Astelehen, astearte edo ostegunetan • 18:00-18:55 ikasturte osoan zehar
12€ / hilean (materiala barne)



ZERAMIKA TAILERRA UMEENTZAT

7 urtetik gorakoentzat • Astelehen edo asteazkenetan
Urritik abendura (ordutegia adosteko) • 20€ / hilean (materiala barne)



MARRAZKI ARTISTIKO TAILERRA HELDUENTZAT

Astearte eta ostegunetan 19:00-20:30 • 20 ordu, urritik azarora
20€ / hilean (materiala barne)



ZERAMIKA TAILERRA HELDUENTZAT

Astelehen eta asteazkenetan • 30 ordu
Urritik abendura (ordutegia adosteko) • 35€ / hilean (materiala barne)



Tailerretan
IZENA EMATEKO
epea IRAILAREN
22ra arte

DENETARIKO TAILERRAK

Oleoa, labeko esmaltea, origamia, akuarela, serigrafia, eskulanak, ...
Ikasturtean zehar



ANA ALBERDI



“Profesional baten ikuspuntutik, zer da moda? Eskaparateak moda al dira?”

raila hasi berri den honetan, herriko zein hiri handietako eskaparateek negu kolorea hartu dute. Beltzak, grisak eta orokorrean, kolore ilunak protagonista izaten dira urteko garai honetan, nola ez, Euskal Herrian ezinbestekoa den aterkiarekin batera. Umeen eskularruak, gazteen larruzko jakak edo emakumeen gabardina beige luzeak urteko urtera ihes egiten ez duten tendentziak bihurtu dira. Baina, zer da tendentzia? Zer dago modan, eta zer ez? Zenbatetan egin ote diot galdera hori nire buruari.

Ni, aitortzen dut, modazale amorratua naiz, bai, baina, betiere, modaz kaleko ikuspegitik hitz egin dezaket. Orduan, beste galdera bat datorrit burura; kaso egin behar al diet neguko eskaparate horiei, Eneko? Askotan pentsatu izan dut, moda inposizioa dela. Aske izaten lagatzen ez digun inposatutako jantziak dira eskaparatekoak, edo ez? Ba al dugu izaera

propioa jantzeko orduan? Zer da izaera propioa izatea? Bat-batean galduta nago.

Ni neu, moda eta jantzien kontsumitzaile sutsua naizen arren, saiatzen naiz jantzeko orduan nire izaera propioa mantentzen; gutxitan egiten diet jaramon eskaparateei. Baina, hausnarketa honen ostean, agian, konturatu naiz estilo pertsonal deritzoten hori inposatutako modaren arabera eraikitakoa izan dela, edo ez? Eztabaidatzerik ez dago, behintzat, kanpo faktoreek eragina izan dutela norberaren estiloaren eraikitze prozesu horretan.

Kontuak kontu eta hausnarketak hausnarketa, niretzat, moda, pertsona oro da. Pertsona oren izaera da moda; izaera horren arabera izango delako agian, modarekiko bakoitzak dugun ikuspegia. Galdera bat argitzea gustatuko litzaidake orduan, Eneko. Profesional baten ikuspegitik, zer da moda? Eskaparateak moda al dira?



ENEKO ITURBE

“Eskaparateak badira moda, baina baita ere, zuk esan bezala, pertsona oro da moda”

K aixo, Ana. Iraila urteko hilabete garrantzitsuenetarikoa da, moda munduan behintzat. Aldi honetan New York, Londres, Milan eta Parisko pasarelak ez ezik, tendentzia berriak estreinatzen dira, guk sekzioa bezalaxe. Sektoreko guztiok begiak zabal-zabalik gabiltza alde batetik eta bestetik informazioa jaso nahian. Udazkena ere bertan da, eta badut, bai, jaka eta gabardina horiek ikusteko gogoia; ez, ordea, aterkia erabiltzeko!

Ziklo baten aurrean gaudela argi dago. Pasareletan jasotako informazioa hausnartu ondoren, modako profesional bakoitzak garrantzitsuena dela uste duen hori azpimarratzen du. Gero, urte erdi beranduago, eskaparate horietan ikusten dugu, eta azkenik, kalean. Galdera da: nork erabakitzen du zer den tendentzia eta zer ez? Guk geuk pentsatzen duguna baino indar gehiago dugu, izan ere, tendentzia kalera iristen ez bada, sektoreak alde batera lagatzen du ideia hori.

Inposizio hitzaren inguruan berba egitea beharrezkoa bada ere, ez al da egia libreak garela zer jantzi eta zer ez erabakitzeko? Tamalez, tendentziak gehienetan uniformea dirudite. Zer esanik ez Elgoibar bezalako herri txikietan. Makina bat pertsona ikus ditzakegu ez jaka berarekin, baizik goitik behera soinean look bera dutela. Tendentzia ez da bakar bat izaten, baizik eta kolorea, forma, luzeera ezberdinak, estanpatuak, materialak edo erropa klaseak osatzen dute “tendentzia” deritzoguna. Ondorioz, erreferentzia bihurtzen dira, proposamenak; ez daukagu zertan hitzez hitz bete beharrik.

“Zer da moda?”. Urteak badira galdera honi erantzuna bilatzen nabilela eta gero eta argiago dut, nire ikuspuntutik, arte espresioa dela; eskultura, pintura edo arkitektura diren bezalaxe. Hitzak ez du zentzurik faktoreak kentzen badizkiogu. Ondorioz, eskaparateak badira moda eta baita ere, zuk azpimarratu duzun bezala, pertsona oro da moda.



Ze distantziatara dago illetargixa?

proposatutakua; goguan errez hartzekua. Izan ere, Lurraren diamentria Illetargixana baiño 3,6 aldiz haundixaga da gitxi gorabehera, eta antzeko zeozer gertatzen da aittatutako bi peloten artian.

“Hona Lur-Illetargi sistemian maketa ulergarrixa: saskibaloiko pelota bat eta zazpi metro térdira bueltaka dabillén teniseko pelotia”

Ez dakitt, ahalegindu zeratenok, zenbateko distantziara jarriko zenduen teniseko pelota hori. Esandako gazte

horrek Youtuben jarritako bideuan ikusten zan jende gehixenak beso beteko distantziara jartzen zabala. Ez gera ondo moldatzen, itxuria, geure eguneroko distantzietatik kanpo. Behin neurri batera ezkeru, haundixa eta askoz askoz haundixaga, danak berdiñak.

Kalkuluak egin ezkeru, ikusi leike, peloten eskalara ekarrirta, Lurra eta Illetargixan arteko distantzia zazpi metro t’erdi ingurukua dala. Horra Lur-Illetargi sistemian maketa ulergarrixa: saskibaloiko pelota bat eta zazpi metro t’erdi bueltaka dabillén teniseko pelotia. Baina osatu daigun maketa hori.

Hartu saskibaloiko baloi hori eta ipini Elgoibarko Kalegoen plaza erdixan; handik zazpi metro t’erdi, nahi dan norabidian, teniseko pelotia. Zer litzateke orduan, nun jarri biharrekua eskala honetan Eguzkixan partezko? Jakina, erantzuna ez da bakarria.

Gazte batek saskibaloiko pelota bat erakusten zion jendiarri, esanaz ‘eman daigun hau Lurra dala’, eta gero, teniseko pelota bat erakusten ziuén Illetargixan partezko. “Zein distantziara dago, zure ustez, Illetargixa Lurretik?”, eta berak haundixa eskuetan eusten zaban bittartian pelota txixixa luzatzen ziuén, norberak pentsatzen zaban lekuan jartzeko. Egizue aproba aurrera segi aurretik. Buruz bada ere.

Alderaketa egokixa da gazte honek



ARGITARATZAILEA:



**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutiak ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainara Argoitia **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
Euzko Legearen Argitaratzailea



BARREnek ez du nere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzunkizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► MILA ESKER!

Gure eskerrik beroenak auzoko jaiak posible egiten lagundu diguzuen guztioi: Elgoibarko Udala, Kultura Saila, brigadako langileak, Usatorre taberna, Sahatzu, Ibar Txiki, Julito, Beristain, Joseba elektrizitatea, Comercial

Zabala eta Elgoibarko Gazte Asanbladako kideak.

Taldelanean, ilusioz eta gogoz, beste urte batez elkartu gara San Antolin festak ospatzera. Eskerrik asko, bertaratu zineten guztioi; eskerrik asko gurekin batera jai-giroaz eta errome-

riaz ondo pasatzera etortzeagatik.

Hurrengo urtean ere elkar ikusiko dugulakoan,

San Antolingo KAXETA auzo elkarteko bazkideak.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.

2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.

3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.

4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak

jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.

5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...

6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutizik argitaratuko.



Pakita Zubiaurre Urizar


2015ko uztailaren 27an hil zen, 87 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Ines Ucin Arizmendi


2014ko irailaren 9an hil zen, 87 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 12, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



I. URTEURRENA

Miguel San Martin Maguregi

2014ko irailaren 12an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, irailak 13, goizeko 08:30ean Maalako elizan. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



Jaurlaritzak antolatutako biktimen memoriari buruzko bileran parte hartu zuen barixakuan Ane Beitia Elgoibarko alkateak



Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 128 udaletako alkateak deitu zituen joan zen barixakurako Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak biktimak gogoratu eta omentzeko ekitaldira, eta horietako bat izan zen Ane Beitia Elgoibarko alkatea. Jaurlaritzak landutako *Euskal kasuan izandako biziitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri (1960-2015)* izeneko txostena aurkeztu zien Urkulluk, eta alkate bakoitzak jakin zezan indarkeriak eragindako zein biktima izan dituen herrian, liburuxka horren ale bana ere banatu zien. Elgoibarko kasuan, zortzi biktima jasotzen dituzte zerrenda horretan, baina datu base hori "irekia" dela nabarmendu du Ane Beitia. Halaxe esan zien Jonan Fernandez Bake eta

Bizikidetza idazkariak: zerrenda hori udalerrri bakoitzaren ekarpenekin osatu nahi dutela. Ekitaldian, lehendakariak gain, Jonan Fernandezek berak, eta Bake eta Bizikidetza saileko Aintzane Ezenarrok eta Monica Hernandok ere parte hartu zuten eta hiru alkatek ere hartu zuten hitza: Julen Mendoza Errenterriakoak (EHBildu), Jose Antonio Santano Irungoak (PSE-EE) eta Juan Mari Aburto Bilbokoak (EAJ). Bilkuraren lehen zatia komunikabideei irekita egin zuten, eta ondoren eztabaidarako aukera izan zuten alkateek eta Jaurlaritzako ordezkariak, ateak itxita. Gerora jakin denez hainbat alkatek ohartarazi zuten zerrenda horretan hainbat biktima falta direla, tartean hildako etakideak.

Zortzi biktima Elgoibarren, Jaurlaritzaren zerrendan

- ▶ Angel Berazadi Uribe. Sigmako zuzendari kudeatzailea. 1976ko martxoaren 18an bahitu zuen ETA-k eta urte bereko apirilaren 8an hil zuen. Itziarren eduki zuten bahituta eta Azkarateko gainean hil zuten, tiroz.
- ▶ Anselmo Duran Vidal: Sortzez Torrejuncillokoa (Caceres, Espainia). Guardia Zibileko kabo lehena Elgoibarren. Atentatuan zauritu zuten Komando Autonomo Antikapitalistakoek, Elgoibarren, eta Donostiako ospitalean hil zen gero. 1978ko urriaren 9a zen.
- ▶ Ramon Baglietto Martinez. Azkoitiarra. Altzari denda bat zeukan Elgoibarren, eta UCDko zinegotzia izana zen Azkoitian. Azkaraten hil zuen ETAk, 1980ko maiatzaren 12an.
- ▶ Jaime Arrese Arizmendiarrera: Elgoibartarra. Arriola y CIAn egiten zuen lan, eta UCDko Gipuzkoako zuzendaritza batzordeko kidea zen. Elgoibarko alkate ere izana zen

1974tik 1977ra. Komando antikapitalistek hil zuten, tiroz, Iriondo tabernan. 1980ko urriaren 23a zen.

- ▶ Jose Exposito Afan: Aguilar de la Fronterakoa zen jaiotzez (Cordoba, Espainia). Aholkularitza bat zeukan eta guardia zibila zen. ETAk hil zuen, 1985eko abuztuaren 4an, Maalan.
- ▶ Jose Luis Gomez Solis: Aldea del Obispokoa (Caceres) zen, eta Armen Interbentziarako Guardia Zibilaren Elgoibarko bulegoan egiten zuen lan. Sorluzen hil zuen ETAk tiroz.
- ▶ Sebastian Aizpiri Leiaristi. Elgoibartarra. Eibarko Chalcha jatetxeko nagusia zen eta harategia zeukan Elgoibarren. ETAk hil zuen tiroz, 38 urte zituela. 1988ko maiatzaren 25a zen.
- ▶ Jabier Zabaleta Aizpitarte. Elgoibartarra. Mapfreko langilea zen, eta Guass diskotekaren jabea zen, lehengusua rekin batera. ETAk hil zuen San Frantzisko kalean, lagunekin zegoela.

Asteburu biribila izan dute Arriagan San Antolin jaietan



Asteburu osoko ospakizuna izan dute Arriaga auzoan, San Antolin eguna irailaren 2an izan bazen ere, barixakuan hasi baitzituzten ekitaldi nagusiak. Txapel jaurtiketa eta oliba jaurtiketa lehiaketak izan ziren arratsaldean, eta bertso afaria, gauean. Aitzol Urainek (24,10 metro) eta Miren Pagoagak (12,70 m.) bota zuten txapela urrutien, eta Gari Uzkudunek irabazi zuen oliba jaurtiketan, hezurra 14,75 metrora jaurtita. Bertso afarian 90 bat lagun batu ziren.

Zapatu arratsaldean, berriz, tortilla lehiaketa, mus txapelketa, haurrentzako jolasak eta koadrilen arteko desafioa izan zituzten.



Tortilla lehiaketan Leire Ansola eta Ixaso Irazabalek erakutsi zuten sukaldaritzarako dohai handiena eta mus txapelketan Patxi Beitia eta Rioja gailendu ziren. Desafioan, hiru koadrila lehiatu ziren, eta Eibartik etorritako taldea nagusitu zen. Gauean, afaria izan zuten karpan, eta 130 lagun elkartu ziren. Laja eta Mikel trikitilariak girotu zuten afalostea eta goizaldera arte luzatu zen jai-giroa.

Errifan zozketa ere egin zuten. Janariz betetako karretila eta Kanariar uharteetarako bidaia zozketatu zituzten, eta hauek izan dira sarrituak: karretila (Jose Gallardo, 4138 zenbakiarekin) eta Kanarietarako bidaia: Inma Almenara, 1526 zenbakiarekin.

Herri Eskolako haurrek eusten diote Oin Alai ekimenari



Ez dira Oin Alairen garairik onenak. Aurten Herri Eskolako 27 umek eman dute izena. Ikastolako umerik ez dago gaur gaurkoz, Ikastolako Guraso Kontseilukoak Oin Alairen gaineko hausnarketa prozesuan daudelako. Udaletik jakinarazi dute, bestalde, jarraituko dutela hilero 50 euroko erosketa bonoak zozketatzen eta saria 80 eurokoa izango dela saridunaren senitartekoren bat boluntarioa den kasuetan. Era berean, jakinarazi dute boluntarioak behar dituztela, batez ere Santa Anatik King-Kongera doan bide zatirako.

Azkoitira joan da Sallobenteko jaietako zozketako saria

Sallobente auzoko jaien barruan errifak zozketatu egin zuten eta 61844 zenbakiari egokitu zitzaion saria. Elkartetik jakinarazi dute Jon Lizarazu azkoitiarrari zegokiola txartel saritua eta jaso duela saria: 1.205 euro.

Banatu dituzte San Rokeko jaietan zozketatutako sariak

Bi sari zozketatu zituzten San Rokeko jaietan: karretila bat eta telebista bat, eta jaien antolatzaileek jakinarazi dute zozketa egin biharamunean bertan banatu zituztela sariak. 4290 errifa zenbakiaren jabeak jaso zuen karretila: Imanol Urainek, eta 3760 zenbakiaren jabeak, telebista: Tomas Carrascosak.

Ez duela reggaetoia debekatu argitu eta hainbat komunikabidek zabalduzako informazio okerra salatu du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak ez du reggaetoia galarazi. Hala zabaldu dute hainbat komunikabidek egunotan, eta hala iradoki dute beste zenbaitek titularretan, baina hori gezurra dela nabarmentu dute Ane Beitia alkateak eta Bittori Zabala Berdintasun Sailko zinegotziak. Gai honek hartu duen oihartzuna ikusita, prentsurrekoa eskaini zuten martitzenean biek batera.

San Bartolome jaian atarian Elgoibarko Udalak bat egin zuen Emakunde sustatutako *Beldur barik* kanpainarekin, jaietan sexu indarkeria saihesteko helburuarekin sortutako kanpainarekin. Genero indarkeriaren biktimen ehuneko handi bat 30 urtez azpiko emakumeak direla jakinda eta eraso gehienak jai-guneetan izaten direla kontuan hartuta, gazteei zuzendu zieten kanpaina. Emakunde helburu horrekin sortutako materialaren artean aukeraketa bat egin eta tabernariengana eta gazteengana jo zuen Udalak. Kanpainako kartela, kanpainako estutxe bat eta erasoren bat gertatuz gero biktimari laguntzeko hainbat telefono zenbaki ere utzi zituzten tabernetan eta txosnetan eta estutxe hori bera Gazteen Eguneko herri bazkarian ere banatu zuten, pertsonako bat. Aldi berean, hamabost kantuko playlist bat ere eman zieten tabernariei, emakumeen burujabetza eta ahalduzkoa sustatzen duten mezuak dituzten hamabost kantu proposatuz. "Proposamen bat baino ez zen, kanpaina hau diseinatu dutenek egindako kantuen aukeraketa bat. Horrekin ohartarazi nahi genuen kantuetako letren bidez ere mezu asko jasotzen ditugula eta horren gaineko kontzientzia hartzea komeni zaigula", azaldu du Zabalak. Kontua da informa-



zio hori nahierara erabili dutela zenbait komunikabidek eta informazio okerra zabaldu dutela.

Udalak proposatutako playlist-a

Honako hauek ziren Udalaren kantuen proposamen horretan jasotakoak: *Mi cuerpo es mío* (Krudas Cubensi), *Autodefensa feminista* (Pottors ta klitto), *Ni izateko* (Kashbad), *Aborto* (Perra Vieja), *No controles* (Ole ole), *Oihu* (Anai arrebak), *Ezetz* (Gose), *Soy una butch* (La tía Carmen), *Zer axola* (Jauko barik), *Todos me miran* (Gloria Trevi), *Digan lo que digan* (Raphael), *Unidas* (Mujeres artistas del hip hop), *No hay clemencia* (Furia), *Emakunde jaio nintzen* (Maixa eta Itziar), eta *Everybody's free* (Rozalla).



III. URTEURRENA

Jose Mari Aramberri Urrutia

2012ko irailaren 13an hil zen. Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 12, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.

**Samindurik dugu bihotza
motel bizitzaren garra.
Gaur ahul sumatzen dugu
zuk emandako indarra.**

Familiakoak

Irailaren 17tik 20ra bitartean izango da Sanlo Eskubaloi taldeak antolatutako garagardo festa

Sanlo Eskubaloi taldeak garagardo festa antolatu du. Irailaren 17an hasi eta irailaren 20ra arte ez da janik, edanik eta musikarik ez da faltako Aita Agirre plazan. 19:00etan, karpa zabaldu eta 21:00etara arteko pintxo potean txistorra, ganbak plantxan, muskuiluak... dastatzeko aukera izango da. 22:30erako Dardara taldeko Garazi Ayesta eta Xabi Larrañagaren kontzertu akustikoa dago iragarrita.

Ostiralean 18:00etan irekiko dute karpa eta berriz izango da pintxo potea. 22:30ean iaz arrakasta izan zuen Melissa and the Jacks taldeak joko du eta gero dantzaldia izango da.

Larunbatean ere karpako jai giroaz gozatu ahal izango da, besteak beste A2an bikote elgoibartarrekin askok garai bateko kantuak gogora ekarriko dituztelako.

Ekitaldi guztiak garagardo eta jateko lagunduko dituzte. Ukondoa, saltxitxak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak



egongo dira egunero jateko moduan eta igandean paella erraldoia prestatuko dute.

Bestalde, aurten, bazkideak txartela jasotzera SanloBeerFest-tako karpara joan beharko dira.

Mausitxako gazta berriz Gipuzkoako txapelkun



Mausitxa baserriko gazta berriz saritu dute aste honetan, Legazpian, Gipuzkoako Artzai Gazta txapelketan 2007an, 2009an eta 2013an bezalaxe. 25 gaztagilek hartu zuten parte eta epaimahaiak Mausitxakoa aukeratu zuen irabazle. Hori dela eta eta urrian, Gipuzkoa ordezkatu du Euskal Herriko txapelketan. Ordiziako azokako lehiaketa ezagunean 48 gazten artean aukeratutako 14etan izan da. Gazten sailean ez dute elgoibartarrek saririk lortu Ordizian, bai ordea, barazkien atalean. Txillarre baserriko Pello Rubio izan da lehenengoa.

II. URTEURRENA

*Maria Isabel
Gomez Vargas*

2013ko irailaren 10ean hil zen.



***Nahiz eta mundu honetatik urrun joan,
ez duzu gure bihotzetatik alde egin.***

Zure sendiak



Donostiako Zinemaldian nahiz nazioartean saritutako filmak ekarriko ditu Ongarrik Elgoibarrera

Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren 63. edizioa datorren ostiralean hasiko da. Izar handiak Donostiara iristearekin batera, izar ezagun gutxi, baina kalitate handiko filmak ikusteko aukera izango dugu Elgoibarren, Ongarri zineklubak bildutako sorta interesgarrian. Donostiako aurreko edizioetako filmak dira batzuk, eta nazioartean sariturikoak, besteak. Libano, Estonia edo Mexikoko filmak ikusteko parada izango dugu ostegunetik aurrera.

- LEIRE URKIDI -

'Phoenix'. Hilaren 17an eta 18an, 21:30ean.

Christian Petzold zinemagileak II. mundu guda osteko Alemaniara garamatza film honetan. Traizioa egin eta Auschwitz-era eraman zuten emakume abeslari baten istorioa dakarkigu. Aurpegia erabat desitxuratuta itzuliko da eta zirujau bati aurpegia itxuratzeko eskatu ondoren senarraren bila hasiko da. *Barbara*, bere aurreko filmean bezala hemen ere emakume bat da protagonista. Iaz nazioarteko kritikak emandako film onenaren saria jaso zuen Donostian, sail ofizialean.



'Ghadi'. Hilaren 19an, 19:00etan. Hilaren 20an, 19:00etan. Eta hilaren 21ean, 21:30ean.

Libanoko filmak ikusteko aukera gutxi izaten dugu eta aukera polita da Amin Dora zuzendariaren lehen film luzea: *Ghadi*. Bi alabaren ostan hain desiratua den semea iritsiko da, Ghadi, down sindromearekin jaioko da eta auzokideek ez dute gaitza ulertuko, horren aurrean aitak pikareska erabiliko du semea ba-besteke. Ez zaio umorea falta 2014an Libanon Oscarretarako ordezkari moduan aukeratu zuten film honi.

'Güeros'. Hilaren 22an eta 24an, 21:30ean.

Zinema-bilbidearen hasierako road movie-a eta komedia da, Frantziako Uhin Berriaren omenezkoa. Tomas nerabearekin moldatzea zaila denez, amak Mexiko Hirian ikasten ari den anaia nagusiarekin bidaliko du. Tomasek Epigmenio Cruzen kasete bat eraman du, aitarengandik oinordetzan hartua. Bere idolo ospitale batean hiltorian dagoela jakitean rock izar zaharrari begirunea adieraztera joatea erabakiko du. Hainbat sari jaso ditu Alonso Ruizpalacios mexikarraren filmak.



'Mandarinas' (Mandariinid). Hilaren 23 eta 25ean, 21:30ean

Sari ugari jasotako Estoniako filma da. Abkhaziako gerra hastear denean, 1992. urtean, Georgian bizi diren estoniar gehienek alde egitea erabakiko dute. Ivok ez du hala egingo, Margus adiskidea lagundu nahiko duelako mandarinen uzta. Nahitaez, gerra etxeraino iritsiko zaio. Aurkariak diren bi soldadu zaurituko dituzte haren etxe aurrean eta biak zaintzeaz arduratuko da. 2015eko Oscar eta Urrezko Globo sarietarako izendatua izan zen.

'El Padre' (The Cut). Hilaren 26an, 19:00etan eta 22:15ean. Hilaren 27an, 19:00etan. Eta 28an, 21:30ean.

1915. urtean Turkiako Mardin herrixkan polizia gizon armeniarak atxilotzen ari zen eta horrela Nazaret bere familiarengandik urrunduko dute. Genozidioari aurre egitea lortu ondoren bere alaba bizikiak bizirik daudela jakingo du eta bilaketari ekingo dio. Hainbat herrialdek produzitutako filma Venezia eta Gijoneko zinemaldietan saritu dute.



Gaztelekua martxan dago berriz eguaztenetik domekara 13 eta 17 urte arteko nerabeentzako

Gaztelekua irudi berriarekin itzuli da uda ondoren. Lokala margotu ostean, eguaztenean zabaldu zuten. Hezitzaileak Maialen Astigarraga, Saioa Arriola, Maite Usabiaga eta Ander Osoro izango dira.

13tik eta 17 urtera bitarteko nerabeentzako zerbitzua da, beraz, 2003an jaiotakoak hasi ahal izango dira aurten. Hasi berrientzat irteera egingo dute irailan Bilboko lasergunera hezitzaileak eta gaztelekua funtzionamendua hobeto ezagutzeko asmoz. Lokalean ere informazioa jaso ahal izango dute. Bestalde, Urbizi urpekaritza taldekoekin urpekaritza ikastaroa egitea ere pentsatu dute. Ikastaroan herriko nerabe guztiak hartu ahal izango dute parte.



Nerabeei ez ezik beren gurasoei eta Gaztelekua ezagutu nahi duen beste edozein herritarri ere eman nahi diete hezitzaileek gunearen berri. Horretarako ate irekien saioa egingo dute irailaren 16an 19:00etatik aurrera.

Ordutegia

Gaztelekua eguaztenetik domekara bitartean egongo da irekita 17:00etatik 20:00etara. Ludoteka, berriz, hilaren 25era artean asteleheneetik ostiralera, 16:00etatik 19:00etara.

matricúlate en

aek

euskara práctico

ikastaroak erdi prezioan eta bekak udalari esker

Elgoibarko AEK euskaltegia - Gabriel Kurutzelaegi 10
(Toletzeko tren geltokiaren besteko aldean)
Tel.: 607 601 423 - elgoibar@aek.eus



SIMONE

"Estudo euskara porque moro no Pais Vasco e quero participar da educação de minha filha"



RAFA

"He aprendido otros idiomas y ahora que vivo aquí euskara"



OLAYA
2. perfila



JAVI
3. perfila = EGA

**Hilaren 17an, 19:00etan,
euskaltegia inauguratuko dugu.
Zatozte denok!**



Joseba Irazoki eta Anari beren taldeekin izango dira Kultur Etxeko Sotoan

Urte asko dira Sinuose Elgoibarko kolektiboak musikaren harira artistak ekarri, ekintzak antolatu eta proposamen bereziak antolatzen dituela. Hilean behin kontzertu berezi bat antolatzeaz gain, urtean behin Sotoko Hotsak izeneko ekitaldia egiten dute eta aurtengoa irailaren 17an eta 18an izango da. Bi musikariek kontzertuak eskainiko dituzte nork bere taldekoekin eta azken diskoak aurkezteko baliatuko dute emanaldia. Joseba Irazoki eta lagunak eta Anari banda entzun ahal izango dituzte Kultur Etxeko Sotoan.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Herrikoak dira. Anari eta Joseba Irazoki aurrez ere egondakoak dira bakarka. Orain bakoitza bere taldearekin ari da, biak oso onak eta biak oso talde onekin. Joseba eta lagunak taldean, Iban Urizarrek jotzen du, eta eta nik neuk parte hartu dut Anariren azken diskoan”, esan digu Ander Mujikak.

SOTOA LEKU BEREZIA

Egitasmo honekin, uste dute Sinuosek modan jarri duela Kultur Etxeko sotoa. “Sotoa, espazio gisa, nahiko utzia zegoen, bestek beste jendeak erakusketak goian egitea nahiago zuelako. Sinuosekooi espazio ederra iruditzen zitzaigun gauzak antolatzeko, eta horrela hasi ginen”, azaldu du Iban Urizarrek. Zabaletak gaineratu du urteekin hobetuz joan direla eta eszenatoki txiki bat dutela, baita oihal bat ere musikariak babesteko-edo.

Urizarrentzat sotoan jotzea beti da berezia. “Sotoa bezalako espazio asko ez dago inguruan eta guk ematen dugun gertutasuna ere ez da oso ohikoa. Saiatzen gara musikariak eta taldeak zaintzen. Jakin badakigu zer den musikari gisa aritzea, beraz, guk pasatutakoak kontuan hartuta gu ere saiateren gara merezi duten moduan zaintzen”.

GONBIDAPENA

Musikariak mimoz hartu ez ezik herritarrak ere gustura hartuko dituzte Sinuosekoek eta gonbitea egin diete kontzertuetarako. “Euskal Herrian dauden musika talde puntakoak dira, eta hiru euroren truke herritarrek sekulako kontzertuak entzuteko aukera izango dute herrian bertan. Pena litzateke aukera hori izanda jendeak ez aprobetxatzea”, dio Zabaletak. Hala ere, kontzertuak mugatuak direla argitu nahi izan dute, sotoan 100 lagun inguru sartzen baitira. Entzuleak ez ezik Sinuosekoek belaunaldien arteko txanda aldatuta beharrezkoa dela uste dute taldeak aurrera egingo badu. Beraz, Sotoko Hotsak jaialdia eta hilabeteroko kontzertuak entzuten jarraitu nahi duten musika zaleak zabalik du sotoko atea talderatzeko.

Sinuose da taldearen izena. Taldeari izana ematen diotenak, berriz, Jon Gurrutxaga, Ander Mujika, Iñaki Ovejero, Iban Urizar eta Patxi Zabaleta. Hilabetero kontzertuak antolatzeaz gain, urtean behin Sotoko Hotsak zikloa egiten dute.

Sotoko hotsak egitasmoa 2007an jarri zuten abian Sinuose taldekoek, musika herritarrei gerturatzeko asmoz. Taldeko ki-deen artean askotariko gustuak daude musika arloan eta kontzertuak antolatzerakoan guztien nahiak asetzen saiatzen dira, eta jakina, entzuleenak ere bai. “Musika berezia izan da beti; hasieran esperimentalagoak izan arren pixkanaka sona handiagoko taldeak ekarri dituzte. “Beti gustatzen zaigu talde eta bakarlariak berezitasunen bat izatea, dotorezia”, dio Patxi Zabaletak.

Urteak urtera emanaldiak hazten joan direla uste du Zabaletak. “Jendearen erantzuna ona izan da. Jende berria etortzen da, bai Sotoko Hotsak-era zein hileroko kontzertuetara, eta lekua ezagutzen dutenean, ikusten dutenean sarrera hiru eurokoa dela, familia giroa dagoela eta tragoak borondatez ordaintzen direla, berriz bueltatzen dira”.

Aurten bestelako berezitasuna izango du ekimenak: hiru eguneko izatetik bikoa izatera pasatuko da. “Aurreko urteetan bat edo bi kanpotik ekartzen genituen, baina aurten bi taldeak Euskal

“Oraingo kantak nireak dira, eta nire nortasuna gehiago islatu da”

► JOSEBA IRAZOKI MUSIKARIA

Udako atsedenaren ondoren, Joseba Irazoki eta lagunak egitasmoak Elgoibarren tokia izango du Kultur Etxeko Sotoan. Sarri beste musikari batzuentzat lan egin izan du, gizon-orkestra moduan ere bakarka aritu da eta oraingoan bandarekin dator. Orain dela bi urte kolaboratzaileekin egindako kontzertu batekin hasi zuen ekimena eta diskoa aurkeztuko du Elgoibarraren. Gainerako musikariak horren ezagunak ez izan arren, banda sendoa osatzea izan da bere helburua eta taldearekin sotoko gertuko giroan kantu berriak eta birmoldatuak ere aurkeztuko dituela aurreratu digu.

◆ Joseba Irazoki eta lagunak diskoa ekarriko duzue sotora. Nondik dator proiektua?

Gizon-orkestra gisa bakarka ibili ondoren, Donostiako Lugaritz Kultur Etxekoek proposatu zidaten kontzertu bat egitea musikari kolaboratzaileekin. Eta musikari lagunak –agian ez oso ezagunak– gonbidatu nituen, nahiago bainuen banda sendoa bat lortzea eta nire kantuak talde batekin entzutea. Lagun musikari horiekin topo egin dut proiektu ezagunetan eta horrelakoetan beti sortzen da adiskidetasuna.

◆ Zeren arabera aukeratu dituzu?

Instrumentazio ezberdinarekin jolastuz hainbat giro islatzea gustatzen zait kontzertuetan eta diskoan. Horretarako saiatu naiz instrumentu bat baino gehiago jotzen duten musikariak aukeratzeko, eta gainera lagunak direnak.

◆ Konposizioari aukera asko eman dizkiozu eta besteentzat egin duzu lan. Orain zu ageriago geldituko zara.

Bai. Nire kantak dira, eta jendeak gus-tuko izan edo ez, nirea da ‘errua’.



Arg.: Juan Usual

Gehiago biluztu dut nire burua, nire nortasuna gehiago islatu da: oso ezberdina da. Konponketa besteentzan egitean, detaile edo kolorea jartzen diet eta ardura txikiagoa. Nahi genituen giro bereziak ziztuzten kantak, atmosferikoak...

◆ Nola deskribatuko zenuke hitz gutxitan zure azken lana?

Kantak ez dira formatu estandarrekoak. Ez da Euskal Herrian entzuten den ohiko musika. Badira folk edo rockera gehiago gerturatzen diren momentuak, baina oro har kantu luzeak dira eta horren helburua da jendea eta musikariak giro batean sartzea; horretarako inprobisazio-ari ere tokia egiten diogu.

◆ Hitzak nora bideratu dituzu?

Amodio-desamodioa, lagun arteko harremanak, gai sozial eta politikoak... Gus-tatzen zait hitzak ez daitezela oso luzeak

izan; buruz ikasteko eta kantak ez luzatzeko. Etribilo askorik ez izan arren, kantetan mezua errazago zabaltzeko balio dezake errepikakorra izateak.

◆ Aurrez egona zara Sotoko hotsak egitasmoan. Nola gogoratzen duzu?

Oso oroitzapen onak ditut. Sinuoseko kideak lagunak izanik, etxean bezala sentitzen naiz. Sotoa leku txikia da, eta giro polita sortzen da beti, hurbila eta goxoa. Mimoz egindako zikloa da.

Oraingoan Iban Urizar herritarra eta Sinuoseko kidea gure taldean izanda, ez dakit jende gehiago etorriko den. Proiektu berri honek oihartzun polita izan du. Aurrekoan jendea etorri zen, baina ez zen bete eta oraingoan beteko balitz, hobe, baina bestela ea jende asko etortzen den behintzat. Hori litzateke onena. Jendeak ematen du jarraitzeko indarra eta gogoia.

“Melodiaren gaineko hitzari mila buelta eman diezazkioket”

▶ ANARI ALBERDI MUSIKARIA



Arg.: Gorka Beunza

◆ **Elgoibarren azken diskoa aurkeztuko duzu. Disko horretan hitzei eman diezu garrantzia, batez ere gaiak tratatzeko moduari. Zein gai erabili dituzu?**

Hitzei garrantzia beti eman diet. Kontua da, hainbeste denbora ari zarenean idazten, beti saiatu behar duzula beste nonbaitera heltzen. Hori da nire ustez zailena; edo niri behintzat gehien kostatu zaidana. Betiko gaiak direla esango nuke. Ikuspuntua da beharbada desberdina.

◆ **Zutaz eta zure momentuz idazten duzu, baina kontraesana bilatuz. Zein asmorekin?**

Asko kostatzen zait nire hitzen analisi literarioa egitea. Ez da beti idazten nahi duzuna, ahal duzuna baizik. Nire legea esatearena eta ez esatearena izaten da idazterako orduan.

◆ **Lehen melodia lehenetsi zenuen, orain hitzak. Zer da garrantzitsuagoa?**

Urteak pasatzen ditut bai melodiak, eta bai hitzak egiten. Melodia aukeratu-

takoan, horren gainean jarduten dut; melodia ez da aldatzen. Aldiz, melodia horren gaineko hitzari mila buelta eman diezazkioket. Niretzat kantua, oraindik ere, eta munduko efektu eta makina guztiak asmatuta ere, melodia, hitza eta interpretazioa da.

◆ **Kanta lasai eta mantsok dira lan berrikoak. Beste giro bat lortzea izan da helburua. Zein giro?**

Uste dut kantak ez direla horrenbeste aldatzen. Seguru asko, kanta bera egiten ari naiz behin eta berriz. Oraingoan, produkzio aldetik, gitarraz beteriko diskoa da, baina ez dago gitarretan oinarritua. Pianoak ere leku handia du.

◆ **Zein soinuk definitzen du azken lana?**

Norbera ez da definitzeko pertsonarik onena. Azkenean, kanta egiten duzuetik produkziara arte, asko aldatzen dira nire kantak, eta nik inpresio orokorra baino ez dut. Uste dut lehen aipatutako gitarren eta pianoaren gainean daudela kantak.

‘Nire aurrekari penalak’ da Anari Alberdiren azken lana, eta aurkezpen lanetan ari den honetan, Kultur Etxeko Sotoan ere egingo du geldialdia. Aurrez bakarrik etorri bazen ere, oraingoan bere banda ekarriko du lagun. Disko bakoitza presatzeko buelta asko ematen ditu, eta eman beharreko buelta denak emanda dator Elgoibarrera. Abesti berriak ekarriko ditu.

◆ **Zurekin jotzen duten musikariei ere garrantzia eman diezu. Nola aukeratu dituzu bandako musikariak?**

Bideak elkartu gaituela esango nuke. Hasieran intuizioz, eta gero egoeren arabera. Beti musikari ezagunekin jardun dut, eta uste dut denborak eman digula talde izaera eta soinu bat.

◆ **Zuzenekoetan ez ezik diskoan kolaboratzaile asko dago. Laguntzaileak ezinbestekoak dituzu, beraz.**

Bakarrik ez naiz aritu, nahiz eta beti heldu izan diodan bakarrik kontzertuak emateari. Disko honetan kolaborazio ederrak daude, zuen herriko Ander Mujikarena, audience taldeko Agerrena, Eneko Moby dickekoarena... lehen aipatutako piano eta gitarretatik alde batera edo bestera kantua tinkatzen duten kolaborazioak dira.

◆ **Elgoibarren aurrez abestutakoa zara sotoan Sinuosek deituta. Nola gogoratu duzu?**

Bakarrik jo nuen aurreko aldian, eta gustura egon nintzen.

Oraingorako ba al daukazu ezer berezirik aurreikusita?

Desberdintasun handiena da orain taldearekin joko dudala eta beste abesti batzuk ditugula.

Udaleko eta Aldundiko ordezkariak IMH kiroldegira bisitan



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Departamentuko diputatu Denis Itxaso, Elgoibarko alkate Ane Beitia, Hirigintza zinegotzi Josu Arraiz eta Udal Kirol Patronatuko zuzendari Ramon Mugicak astelehenean bisitatu zuten Elgoibarko Udalak eta Aldundiak elkarlanean eraiki duten IMH Kiroldegia. Foru Aldundiak 200.000 euroko laguntza eman du kiroldegia egiteko.

Maiora hirugarren, Montanako The Rut Mountain Run lasterketan

Maite Maiora korrikalari mendarorak Europako mendiak ezezik Ameriketakoak ere mendean hartzen badakiela frogatu du. Montanan (AEB) jokatzen den The Rut Mountain Run 25 kilometroko mendi lasterketan hirugarren izan da. Horrela esuratu du distantzia ertaineko mendi lasterketan Munduko Kopako lidergoa, oraindik hainbat lasterketa falta diren arren. Munduko Kopako hurrengo lasterketa urriko lehen asteburuan jokatuko du Hong Kong-en. Aurrez, Axari trail proban eta Ultraspirineuko kilometro bertikalean hartuko du parte.



Gau kroserako izenematea zabalik

Mintxeta atletismo taldeak antolatuta VI. Gau Kros herrikoia izango da irailaren 19an, zapatuan, 20:00etan. Herriko kaleetan barrena egingo da lasterketa, 7,7km-ko ibilbidean, Kalegoen plazan hasi eta bukatuz. Lasterketan parte hartu ahal izateko, izena eman beharko da irailaren 17a, baino lehen www.mintxeta.com webgunean. Lasterketa egunean bertan ere posible izango da izena ematea. Dorsalak eta txipa irailaren 18an, ostirala, jaso ahal izango dira Sanlo Eskubaloi Taldearen karpan 18:30etik 20:00etara bitartean edo lasterketaren egunean Kalegoen plazan 18:00etatik 19:30ak arte.

Emaitzak

ESKUBALOIA (EUSKADIKO KOPA)

Alcorta Forging Group 33 – Gure Auzune 30
(Senior gizonezkoak)
Errotaberri 19 - Lauko 19
(Senior emakumeak)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 12
10:00 CD Elgoibar – SD Eibar (Infantil txiki)
11:45 CD Elgoibar – SD Eibar (Ohorezko inf.)
16:30 Elgoibar – Ermua (Ohorezko kad.)
Domekia, 13
10:00 Alebinen lagunartekoa
17:00 Haundi – Mutriku (Preferente)

45.000 erabiltzaile Mintxetan udan

Mintxetako igerilekuen aurtengo denboraldia amaituta Udal Kirol Patronatutik esan dute, 45.123 erabiltzaile izan direla. Ekainean eta uztailean egun eguzkitsu asko egin dituzte, 1.000 erabiltzaile baino gehiagoko hogei egun izan dira. Egunik jendetsue- nean, ekainaren 30ean, 1.532 lagun izan ziren. Denboraldia amaituta, irailaren 13a baino lehen jaso behar dituzte jabeek igerilekuetan utzitako hamakak astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 20:00etara edo larunbatean eta igandean, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era.

C.D. Elgoibarren urteurren batzordea

2017an beteko ditu C.D. Elgoibarrek 100. urteurrena. Horren harira hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa dago herrian eta elgoibartarren laguntza ezinbestekoa da horretarako. Antolaketa batzordea osatzen ari badira ere, eskertuko lukete beste herritar batzuk ere gerturatzea, beraz, batzordean parte hartu nahi izanez gero 943 74 19 29 telefono zenbakira deitu izena emateko.

Euskal Herriari itzulia, hiru etapatan

Gutxi itzuliko ziren oporretatik argazkirik egin gabe, baina Gorka Zabalarik ez eskatu uztailearen hondarrean egin zuen abenturako argazkirik. Ez zuen astirik hartu horretarako. Argazki-kamerarik ere ez zuen hartu aldean; soilik sakelako telefonoa eta "oinarri-oinarrizko" beste hiru-lau gauza. Hiru egunetan Euskal Herriaren perimetro osoa osatu zuen bizikletaz, Elgoibartik abiatuta. Ez zuen aurreneko aldia bizikleta hartu eta bakar-bakarrik distantzia luzeak egitera ausartzen zela. 13 urterekin osabak bizikleta oparitu zionetik, kontu ezin beste kilometro egin ditu, gehienak bakar-bakarrik, eta aitortu du hortxe, bizikleta gainean, gozaten duela berak gehien. Sufritu eta gozatu; biak.

- AINARA ARGOTIA -



Elgoibartik irten eta hiru egunetan Euskal Herriari itzulia egin zion Gorka Zabala (Mendaro, 1969), bizikletaz. Bere burua beste lagunik ez zuen izan bidean, eta hura ere kontra agertu zitzaion Bardeetan gora bero lamarak estu hartu zuenean, baina hartu zuen mendean. "Burua mundu bat da. Gorputzak buruari jarraitzen dio beti, eta buruak nahi badu, gorputzak erantzuten du. "Abentura han bertan lagatzeko tentazioa ere izan nuen, baina zer egiten nuen ba han geldituta!. Izaban lotarako lekua hartuta neukan gau horretarako, eta hara iritsi egin behar nintzen!". Ur justuarekin, ipurdia egosita eta bizikletan jartzeko baino minberago eginda, baina egin zuen aurrera eta osatu zuen ibilbide osoa: la 800 kilometro, hiru egunetan. Halakoak eta marka handiagoak ere mila egiten direla nabarmendu du, baina inork gutxi ukatuko du handia egin duela. "Marka nireak? Meritua dute autoa trastez bete, oporretarako lekura abiatu eta auto-ilaratan sei ordu egin behar izaten dituztenek! Nik hori bai ezin dudala!".

Santiago bidea egitea eta Pirinioak alderik alde gurutzatzea baziren bi aukera, baina eginak zituen biak, Transpirenaika birri-

tan gainera. Erronka berria behar zuen, eta batez ere, "aglomerazioak" saihestu nahi zituen. Halaxe, Euskal Herrian hamaika bider ezagututako bazterrak lotzea bururatu zitzaion. Mapa erosi eta errotuladoren markatu zuen Euskal Herriaren perimetroa, beti ere arrisku handiko errepideak –"trafiko handikoak, arriskua edonon dagoelako"– saihestuz. 760 kilometro inguru irten zitzaizkion; kilometrotan, Frantziako Tourreko hiru etapa. "242, 251 eta 260 kilometroko etapak ziren, bai, baina udan egunak luzeak dira, eta goiz irtenda, 17:00ak alderako bizikleta gaineke lana amaitu izango nuela kalkulatu nuen [Batez beste 10-11 ordu egin zituen egunean bizikleta gainean]. Bi guturako ostia hartu nuen: Logroñon lehen gaurako eta Izaban bigarren gaurako". Aurrez ere, antzeko makina bat "abentura" egindakoa da, eta zailduta ditu hankak, urtean 10.000 bat kilometro egiten dituelako bizikletaz –lantokitik, Hernanitik, bizikletaz bueltatzen da etxera, euri asko egiten ez duen guztietan–, eta horregatik beharbada, ez zuen burua larri nekatu gai izango ote zen galdezka eta ezta eraman beharrekoen zerrenda egiten ere. "Kamisetak bat, praktika motz

*“Ikusgarriena zera da:
ikustea horren kilometro
gutxiren barruan zenbat
aldatzen den klima,
zenbat aldatzen den
paisaia. Eta hori dena,
hemen bertan, Euskal
Herriatik irten gabe”*

bat, hortzetako pasta eta eskuila, eta sake-lako telefonoaren bateria kargatzekoa hartu nituen bidoieramalean eta txankletak, bizkarrean. Zertarako gehiago?”.

‘Zertarako gehiago?’ Horixe esan zion Izabako ostatuko jabeari ere, ekipaia ostatuan ahaztu ote zuen galdezka gerturatu zitzaionean. “Izabara bizikletari asko iristen zirela esan zidan, baina sekula ez zuela ikusi aldean horren gauza gutxi zeramanik. Zertarako behar nuen, baina, gauza gehiago? Hiru egun bakarrik egin behar nituen etxetik kanpora, eta hirugarren gauean etxean egin behar nuen lo. Oporretan kanpora goazenean ere zenbat alferreko gauza eramaten ditugu? Erdiak bai!. Zira hartu edo ez ibili nintzen irten aurretik, baina azkenean mailot eta kulote motzekin irten nintzen”. Hori bai, Izaban, zabor-poltsa handi bat hartu zuen, hirugarren egunerako ondo etor ziezaiokeelakoan haizetik babesteko, eta ez zen damutu. Euskal Herria hori ere badelako: hemen uda, eta kilometro gutxira, negua.

HERRI BAT, MILA AURPEGI

“Ikusgarriena hori da: ikustea Euskal Herrian, horren kilometro gutxiren barruan, zenbat aldatzen den klima, zenbat aldatzen den paisaia”, bota du. Elgoibartik Logroñora egin zuen lehenengo etapa, eta etxetik gertuan Urduña “deskubritu” zuen, “Leku zoragarria”. Hain gelditu zen liluratua, eze bidaia amaitu ostean haraxe egin zuen etxeokoin lehenengo irteera, egunpasa. “Urduñan bertan ere esan zidan tabernari batek kanpotik jende asko joaten zaiela baina hemen bertako asko harrituta gelditzen direla hango paisaiekin, imaginatu ere ez dutelako egiten halakorik egon daitekeenik ere”. Eguraldiak lar lagundu ez arren, gozatu zuen etapa hartan. Ez, ordea, bigarrean, Logroñotik Izabara artekoan. “Infernua” ezagutu zuela dio, beroaren beroaz, gogotik sufritu zuela Bardeetan gora. Ezagutzen zituen hango baldintza gogorak eta bazekien bero sapak estu hartuko zuela, baina aitortu du uste baino gogorragoa egin zitzaiola. “Joan eta joan, eta han ez dago arbolarik; ez dago itzalik; ez dago ezer. Bidean inor ez, ura justuan, eta haizea ere kontra. Infernua zen hura! Nik ba al dakit zenbat ordu behar izan nituen Izabara iristeko! Baina iritsi nintzen, dutxa bat hartu, afaldu eta ahaztu nituen denak. Guk geuk uste baino gogorragoak gara. Deitu nezakeen etxera eta bila joateko eskatu, baina damutuko nintzen seguru”. Sufrizten dakienak gozatzen ere badakiela dio



eta gogotik sufrizten denean gozamina beti dela handiagoa. “Kirola egiten dugunok badugu hori ere. ‘Zisko eginda nago, baina zein ondo nagoen’ esate hori. Egoera zailak gainditzeak engantxatu egiten du. Zuk badakizu zer den bizikletan jartzeko gai ez zarela ibili, tente joateko indarririk ez izan, bide guztia bakar-bakarrik egin, eta norbere etxera itzultzea? Horiek egin, egin, behar dira etxean daukaguna baloratzeko. Eguneroko errutinan ez gara horretaz konturatzan, baina begira, irteten zara hiru egunerako, estutzen duzu pixkat zeure burua, eta berehala hasten zara etxeokoin falta igartzan”.

“Zuk badakizu zer den bizikletan jartzeko gai ez zarela ibili, tente joateko indarririk ez izan, bide guztia bakar-bakarrik egin, eta norbere etxera itzultzea? Horiek egin, egin, behar dira etxean daukaguna baloratzeko. Eguneroko errutinan ez gara horretaz konturatzan, baina begira, irteten zara hiru egunerako, estutzen duzu pixkat zeure burua, eta berehala hasten zara etxeokoin falta igartzan”.

Izabatik irten eta gau hortan bertan etxean lo egingo zuela jakiteak lagunduko zion beharbada egun horretan bizitako “miseriak” ahazteko. Baina hara non, Iparraldeko lur malkartasuekin egin zuen topo. Ateri egin zion Izabatik Belaguara artekoan, baina golpetik negua egin zitzaion han, eta euritan egin zuen handik aurrerako bide zatirik handiena. “Iparraldea beste mundu bat da. Kostaldea saihestu nahi nuen, jendetza handia egongo zelakoan, eta barru aldetik etorri nintzen. Eta, jakina, han ez dago laurik, eta galtzeko ere ez da meritu handirik egin behar. Eta galdu nintzen, jakina. Hanketatik hirugarren egun horretan sufritu nuen gehien. Lehenengo bi egunetako nekeari hango gora-behera guztiak batuta... uste baino gogorragoa egin zitzaidan”.

Baina beti ikasten da zerbait, eta garbi dauka: noizbait itzuli hau errepi-katu beharko balu –gogorik ez du falta–, atzekoz aurrera egingo luke, Iparraldea azkene-rako laga beharrean. “Ikaragarri” gozatu duela dio, nolana ere, eta animatu nahi ditu kirol-zaleak probatzera: “Ez dira damutuko”.

IRAUPEN LUZEKO PROBAK

Distantzia luzeak ditu gustuko Gorkak, iraupen luzeak, baina antolatutako probak egin ordez nahiago du bizikleta hartu eta ibilbide luze horiek bakar-bakarrik egitea. “Berezia izango naiz, baina bakarrik ibili zalea naiz. Hemen inguruan bizikletan ibiltzera irtetzen naizenean ere, bakarrik irtetzen naiz ni. Ez naiz hurrengo egunerako inorekin ordua jarri zalea. Kirola egitea gustatzen zait, baina gogoia dudanean, eta ez konpromisoz”. Antolatutako proba askotan parte hartutakoa da, hala ere, eta buruan badauka mota horretako beste bat egitea: Paris-Brest-Paris [1.200 kilometroko lasterketa da]. Lan-egutegia eta familiako ardurak uztartuz gero, saiatu nahiko luke.

LANA.....**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest.

☎ 632 767 696

Nagusiak zein umeak zaintzeko edo taberna, jatetxe edo etxeetan garbiketarako egiteko prest. Fruta saltzen eta sailkatzen ibilitakoa.

☎ 667 301 325

Bi katakume oparitzen ditut. Maiatzean jaiotakoak dira; grisak.

☎ 943 740 687 / 629 434 161

Etxeko garbiketarako edota pertsona helduak zaintzeko prest. Orduka nahiz interna moduan lan egiteko prest.

☎ 631 681 516

Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest.

☎ 634 209 087

Nagusiak edo umeak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo zerbitzari lanak egiteko prest. Orduka.

☎ 632 879 419

Orduka zaintza lanak egiteko prest. Sukaldari laguntzaile ere egingo nuke lan.

☎ 622 617 624

Nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna nahiz externa.

☎ 633 236 528

Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest.

☎ 667 897 002

Ingeles eskolak ematen ditut, etxez etxe.
☎ 943 744 062

Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest.

☎ 685 724 861 / 943 748 899

Umeak zaintzeko nahiz ingeles eskolak emateko prest. Euskalduna naiz.

☎ 608 686 814

Adinekoak zaintzen edo etxeak, elkar-teak nahiz tabernak garbitzen egingo nuke lan.

☎ 631 098 995

Nagusiak nahiz umeak zainduko nituzke. Era berean, sukaldari laguntzen edo garbiketara lanak egiten arirezko prest.

☎ 631 562 380

Atariak garbitzeko prest.

☎ 617 571 210

Eskaintzak

Emakumea behar da umeak zaintzeko. Aukeran, autoa badu hobe.

☎ 610 285 315

Emakume euskalduna behar da astelehentik ostiralera, goizetan, 7:30etik 10:30era, gure bi semeak ikastolara eramateko eta etxeko lanak egiteko.

☎ 665 727 979

Elgoibarko denda baterako langilea behar da. Aste barrurako eta astebururako. Beharrezkoa da 25 eta 40 urte artekoa izatea eta euskaraz hitz egitea. Bidali CVa helbide honetara: nire-denda@hotmail.com

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarran. Bi logelatakoa. Gehienez 400 euro ordaindu ditzaket hilean.

☎ 631 252 750

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarran. Hiru logelatako etxea izatea komeni zait.

☎ 631 098 995

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarran. Hilean 450-500 euroraino ordaintzeko prest.

☎ 661 064 027

Elgoibarko bikote nagusi batek etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren bertan, erdigunean. Iggogailudun etxea izan behar da.

☎ 669 339 529

GARAJEAK.....**Alokairua**

Garaje itxi bat emango nuke alokairuan Elgoibarren, Leku-Ederren.

☎ 688 687 820

OSPAKIZUNAK

1945. urtean jaiotakoen kinto bazkaria egingo dugu urriaren 3an Sigma jate-txean. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte irailaren 30a baino lehen Euskadiko kutxako (Caja Laboral) kontu korronte honetan: ES80 3035 0007 25 0071 131384. Elizkizunarekin hasiko dugu eguna, 13:00etan Santa klarako elizan. Bazkaria 14:30ean izango da, eta bazkalaretik taldeko argazkia aterako dugu. Oharra: Diru-sarrera egiteko orduan eraman kontu zenbakia.

1935. urtean jaiotako elgoibartarren ospakizuna egingo dugu irailaren 26an. Interesatuak 55 euro sartu beharko dituzte irailaren 20a baino lehen Euskadiko kutxako (Caja Laboral) kontu korronte honetan: 3035 0007 22 0071 131225. Izen-abizenak zehaztu dirua sartzeko orduan. 12:30ean Maialako Milagrosa elizaren ondoan elkartuko gara. Bazkaria, 14:00etan izango da, Txaridunan.

1990. urtean jaiotakoen afaria egingo dugu irailaren 19an. 20:00etan Gabi jatetxean elkartu eta poteoa egin ondoren, afaria Sigma jatetxean izango da 21:30ean. Joan nahi dutenek 40 euro sartu beharko dituzte irailaren 14a baino lehen Euskadiko kutxako (Caja Laboral) kontu korronte zenbaki honetan: ES88 3035 0007 27 0070067149.

BESTELAKOAK.....

Ninfa txoriak ihes egin zigun uztailearen 9an, 21:00ak aldera, Maala inguruan. Kakatua espezie txikiena da eta hezita dago. Blue izena dauka eta topatzen duenari eskertuko genioke deitzea oso estimatzen geneukan eta.

☎ 619 867 218



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar

☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net

NORFO SL

Etxe jabeen azken bileran, bizilagun batek jakinarazi digu bere etxebizitzak, azalerarik handienekoa izan ez arren, parte-hartze kuotarik handiena duela obra berriaren eraketa eta banaketa horizontalari dagokionez. Ustez, akats bat izan zen partizipazio kuota esleitzerako orduan eta etxebizitza handiago bati zegokion kuota eman zioten.

Etxe jabeen bileran ados jarri ziren elkartekoak eta kaltetutako jabeak. Etxe jabeen elkar-teak nahi du norbaitek akatsaren erantzukizuna hartzea eta aldaketei dagozkien notario eta erregistro gastuak ordaintzea. Nor da akatsaren eta horrek sortutako kalteen erantzulea?

AHOLKUA: Enpresa sustatzaileak hartu beharko du akatsaren ardura eta berak ordaindu beharko ditu notario eta erregistro gastuak. Borondatez egin ezean, etxe jabeen elkar-teak auzitara eraman beharko du.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
 Instituto Vasco de Administraciónes Locales Autónomas



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Oihane**, abuztuaren 10ean 2 urte bete zenituelako. Muxuxo handi bat guztion partez.



Zorionak, **Hai-zea**, abuztuaren 20an 2 urte bete zenituelako. Etxeko partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Garazi**! Irailaren 16an 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, etxeko partez.



Zorionak, **Paul**, bi urtean zehar hainbat gauza ikasi dituzulako. Zoragarria zara. Asko maite zaitugu. Zure familia osoak.



Zorionak eta ondo pasa zure urtebetetze egunean, **Nora**.



Zorionak, **Oihana**! Irribarre alai horrekin jarrai dezazula. Besarkada bat etxeko partez.



Zorionak, **Ihart**, irailaren 9an 6 urte bete zenituelako. Familiako partez, eta bereziki Julenen partez.



Zorionak, **Julen**, zure hiru-garren urtebetetzean. Patxo handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Ira-txe**, bihar 9 urte beteko dituzulako. Muxuak Jose Reni, Maria eta Saioren partez.



Zorionak gure printzesa surfistari datorren asteartean urtebetetze eguna duelako. Ondo pasa, **June**



Zorionak, **Julen**, asteazkenean 8 urte bete zenituelako. Familiako partez.



Zorionak, **Mad-dalen**! Muxu pila bat familia osoaren partez.



Zorionak, **Ane**, atzo 11 urte egin zenituelako. Muxu eta besarkada asko zure familiako guztien partez.



Zorionak, **Ihin-tza**, zure 11. urtebetetzean. Muxu handi bat maite zaitugunon partez, eta bereziki Oinatzen partez.




Zorionak, **Cristobal eta Maialen**! Oso ondo pasatu larunbatean eta goza ezazuela zuen egunaz. Gurasoek, Nereak eta Noak.



Zorionak, **Maialen eta Beñat**. Ondo-ondo pasa igandearen, zuen urtebetetze egunean. Muxuak, bereziki Ane, Eneko eta Maiteren partez.



Azkenean iritsi da eguna. Poz-pozik gaude zuekin egun zoriontsu hau ospatzeko. 'Cala la Romana' taldearen partez, zorionak, **Cristobal eta Maialen**



Zorionak, **Diana eta Juanan**. Irailaren 12an, zuen ezkontza egunean, pozik izango gara etxekook Madrilan. Gozatu eta ondo pasa. Familiakoak.

leku
eder

horts klinika

Elena Herrero Lobo Dra.
Col. 20.000.671



- Diagnostiko digitala
- Estetika (zuriketak)
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Aita Agirre Enparantza, 5 behea • 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

11 BARIXAKUA

18:30 Juan Armentia argazkilariaren Ze-tazko *Gerlariak* erakusketa. Kirolari para-linpikoen argazkiak izango dira ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan, astelehe-netik larunbatera, 18:30etik 20:30era. Antolatzailea: Ongarri Argazki Taldea. Laguntzailea: Saiatu Fundazioa. Irailaren 26ra arte.

17 EGUENA

18:30 Garagardo festaren irekiera Aita Agirre plazan. Sanlo Beer Festa irailaren 20ra arte, Aita Agirre plazan. Antolatzailea: Sanlo E.K.T.

22:00 Sotoko Hotsak. Joseba Irazoki eta lagunak. Antolatzailea: Sinuöse. Kultur Etxeko sotoan.

22:30 Kontzertua. Dardara taldeko Garazi Ayesta eta Xabier Larrañagaren kontzertu akustikoa. Sanlo Beer Festako

karpan. Antolatzailea: Sanlo E.K.T.

18 BARIXAKUA

17:30 Kiribil. Maalako parkean.

22:30 Kontzertua: Melissa and The Jacks. Sanlo Beer Festako karpan. Antolatzailea: Sanlo E.K.T.

23:00 Sotoko Hotsak. Anari banda. Antolatzailea: Sinuöse. Kultur Etxeko so

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 Guardiak 09:00 - 22:00

11 Barixakua ETXEBERRIA	15 Martizena ORUESAGASTI
12 Zapatua FERNANDEZ	16 Eguaztena BARRENETXEA
13 Domeka FERNANDEZ	17 Eguena IBAÑEZ
14 Astelehena YUDEGO	18 Barixakua YUDEGO

22:00 - 24:00

Astelehenetik igandera
GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)
Juan Gisasola, 18
Tel.: 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384



LODOSO LEIHOAK

Leihoen Renove plana 2015

 **EVE** Ereko Ikerketak eta Energetika

%22ko DIRU LAGUNTZA

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
943 743 490



- PIVOS
- ALUMBRIOVA
- TERREKOA
- ZUIRA
- ALUMBRIOVA
- POLKURETANDA

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

2015ean jaiotako haurren matrikulazio-aldia zabalik irailaren 14tik 25era, azarotik otsailera bitartean hasiko diren haurrentzat.



elgoibar ikastola



IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen bilera irailaren 14an, 18:00etan



euskarak batzen gaitu

EL EUSKERA
NOS UNE

UDAL
EUSKALTEGIAK
Euskara ikasleak • ikasleak eta euskalariak



CURSO **15/16** IKASTURTEA

15-16 IKASTURTEA

Matrikula zabalik

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariak eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA
- 16 urtetik gorakoentzat
- Matrikulaldia: irailaren 25era arte
- Langabetu, ikasle eta gurasoek, **MATRIKULA ERDIA**
- Bekatze sistema ikasturte bukaeran
- Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

ELGOIBAR: 09:00 – 13:00 / 15:30 – 19:30
DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
Kalebarren plaza, 2 – Tel.: 943 742 731

ELGOIBAR HURRENGO ERAIKUNTZA

AZKEN ETXEBIZITZAK SALGAI

ANDONEGI-ETXEA



130.000€
(BEZa bame)

230.000€
(BEZa bame)



1, 2, 3 edo 4 logelatako
etxebizitzak salgai



Bernardo Ezenarro, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 743 492 / 625 708 042 - juncal@unastegi.com



Eire Vila



Mikel Olaizola



Nire leihotik nago zure leihora begira gaur ere, zulotik zulora. Zuri, Paqui, *la del quinto*, beti lutoz jantzia, auskalo zergatik, nork daki nohengatik. Garbantzuak sutan, minak kantatzen dituen emakume txikia, auzoko

Chavela Vargas: pontxorik gabe, arterik gabe, baina bizitza bizkarrean. Bi kale goragoko ertzeko ultramarinosa baino urrunago sekula harrapatu ez zaitudana, eta han ere etxeko zapatiletan.

Gaur ere hortz horitzuko irribarre batekin, erdi irekitako leiho batetik arropak esekitzen edo erdi itxitako leihotik arropak erretiraten, berriro ere esekitzeko halako batean. Hari xingle batean behatz dardartiz jantzi beltzak koloretako pintzez helduz, landare edo apaingarririk gabeko barlasai soilean; tximinia belztuak ez-

tulka ari diren tartean eta teilatuak malda hartzen duen eremuan ari zara kantari, jakinean entzuten ari natzaizula.

Hara itzultzen baitzara arratsaldero, bostak eta hogeita lauko trenarekin batera, betiko lekura, betiko moduan; zure zuloaren irteerara. Baina beldurrez bururik guztiz atera gabe, sukaldeko azulejo zurian *noventayseiseko* Milagrosaren egutegiari zeharka so eginez tarteka, besoak lotsati luzatuta penak haizetan lehortzen jartzera, lurraren eta zeruaren arteko eremu emankor horretan dantzatzen. Etxeko hautsetik kaleko hutsera daramatzazu lanak apurtutako eskuak eta denborak higatutako ehunak, ilundutako egunak.

Gurean ere geranioak aspaldi hasi zitzaizkigun zimeltzen, hortaz uste dut ulertzen zaitudala: iraila ez da estanpatu loratuen garaia. Baina matxarda gorri-berde horiena detaile bat, aizu.

“Iraila ez da estanpatu loratuen garaia”




IV. URTEURRENA

**Leire
Ugarteburu Gabilondo**

**Urteko egun guztietan
bizi eta biziko
gure gogo-bihotzetan
maite hori!**

Etxekoak
2011 - 08 - 18



VII. URTEURRENA

Nora Rey Nogales

**Gure oroimenean bizi zaren artean,
gure bihotzetan betiko izango zara bizirik.**

1998/10/1/ - 2008/08/11



III. URTEURRENA

Jose Loiola Iriondo

2012ko irailaren 13an hil zen, 79 urte zituela. Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 12, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.

**Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza,
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean.**

Etxekoak



Haizea dator Iparraldetik!

URRIA

2

Mixel Etxekopar
Kontzertua (sotoan)

7

Euskara Iparraldean
Hitzaldia: Xan Aire

10

11

12

Ainhoatik Garazira
Mendi-ibilaldia

14

Iparraldeko kultura
Antton Luku - Miren Artetxe

24

Kantu-bazkaria:
Aire ahizpak
Belaustegei jabetxean

30

'Iparrar ez galtzeko!'
Gehigarria **BARRENEN**

AZAROA

14

'Ederlezi' pastorala
Herriko Antzokian

14

Nahia x Mathys eta Xiberroots
Kontzertua Gaztetxean

Kantu-bazkariaren prezioa 35 euro izango da, eta aurretik eman behar da izena.
Aire ahizpen emanaren ondoren, Eñaut Elorrieta eta Uxue Alberdi, Iban Urizar, Jon Gurrutxaga ...



Euzko Mendi Erakundeak



Euzko Eskara

elgoibar



HARITZ

sinuöse



Euzko Barriko Gazte Asanblada



DEJUSTICIA BERRIA
Idetza lortu ahal!

HT

TRADICIONA
HOTEL S.



ETXE-TAR